

---

## 4. DIRU-ITURRIAK

---

Gure proiektuaren helburua gazteen, eta helduentzat sare erabilgarri bat egitea da Azkenean zerbitzu honek eskaeraren arabera lortuko ditu diru-sarrerak.

Hau da, aplikazioa erabili ahal izateko, erabiltzaileak kuota bat ordaindu beharko du. Horrek erabiltzailearentzat kostu txiki bat eragingo dio baina zehaztasun gehiagorekin ziurtatuko du bere taberna gustokoenean erreserba egitea. Azken finean, taberna horretara deitzea dohainik da baina ez die lekurik ziurtatzen eta gutxigo ere beste aukera bat eskaintzen beste toki batzuetan.

Beraz, ordainketa errepikagarria izango litzateke, hau da, hileroko kuota finkoa bat ordaintzea. Erabiltzeari utzi nahi badiote, baja hartzeko aukera izango dute.

Beraz esan genezake erabiltzaileak askatasuna izango duela bere dirua inbertitzeko bere beharren arabera.

Honekin batera, gure aplikazioan, publizitatea egingo zaie beste taberna, hotel edota aisialdirako establezimenduei, hau da, beraiek, bezeroak lortuko dituzte algoritmoak emanda beraien gustoen arabera aukeratutakoak baina horren truke, gure proiektuari diru sarrera bat emango digute hori bete ahal izateko.